ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Pozoscuro eremuan Erriberabeitiko arau subsidiarioen egiturazko aldaketa puntuala izapidetzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko prozesua

Udalbatzaren osoko bilkurak, 2024ko azaroaren 19an egindako bilkura berezian, erabaki zuen Pozoscuro eremuan Erriberabeitiko arau subsidiarioen egiturazko aldaketa puntuala egiteko izapidea hastea. Aldaketa hori eraikigarritasuna handitzean eta aparkaleku plazen erreserbak aldatzean datza.

Horrez gain, bat etorriz ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. eta 108. artikuluetan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin, herritarrek parte hartzeko Clinker Ingenieros-en programa onetsi zen egiturazko aldaketa puntual horretarako, 2024ko urriaren 28an. Honako parte hartzeko programa hau eta bitarteko hauek ditu:

PROPOSATUTAKO BITARTEKOAK

1. Herritarrentzako arreta. Ahalik eta herritar gehienengana iristeko, hiru interakzio modu proposatzen dira idazketa taldearen eta herritarren artean:

☐ Aldez aurreko kontsulta publikoa, B atalean adierazitakoaren arabera.

☐ Bilera orokorra, herritar guztientzat, hasierako onespena jasotzen duen dokumentua azaltzeko. Bitarteko egokien bidez egingo da publizitatea, eta berariaz gonbidatuko dira udalarekin adostuta egokitzat jotzen diren eragileak.

☐ Banakako arreta jarraitua prozesu osoan, helbide elektroniko honen bidez: jorge.roa@clinkeringenieros.com.

2. Hedabideak. Arau subsidiarioen dokumentazioa zabaltzeko, hau proposatzen da, oro har:

☐ Prozesu osoan zehar prestatzen den materiala udalaren web orrian argitaratzea, bereziki, hasiera onespena jasotzen duen dokumentazioa. Dokumentazio hori, gainera, udal bulegoetan egongo da eskuragarri, euskarri fisikoan.

☐ Programa honen arabera egiten diren ekintzak bitarteko tradizionaletan (iragarki taulak edo leku interesgarriak) nahiz udalak erabili ohi dituen bitarteko digitaletan argitaratzea.

3. Aldaketaren materiala.

☐ Saio orokorrean, irudiak proiektatuko dira eta horiek argiak eta ulerterrazak izan daitezen ahaleginduko da.

☐ Dibulgazio material egokia prestatuko da, hasierako onespena jasotzen duen dokumentuarekin batera joango dena, errazago uler dadin.

☐ Eredu estandarizatuak emango dira, bai aldez aurreko kontsultarako, bai alegazioak aurkezteko, parte hartzea sustatzeko eta iritziak eta nahiak argi transmititzen direla bermatzeko.

PARTE HARTZEKO PROGRAMA

Hona hemen parte hartzeko programan planteatutako ekintzak eta urratsak:

1. Herritarrek parte hartzeko programari onespena ematea arau subsidiarioen aldaketa puntuala izapidetzea onesteko udal erabakian. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabalduko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Aldez aurreko kontsulta publikoa: hamabost egun naturaleko epea izango da herritarrek parte hartzeko. Epe horretan, iradokizunak edo iritziak aurkeztu ahal izango dira, bai baliabide tradizionalen bidez, bai udalaren web orriaren bidez.

3. Jasotako iradokizun eta iritziei buruzko idazketa taldearen txostena, udalak aztertzeko eta parte hartzaileei erantzuteko.

4. Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren hasierako onespena. Jendaurrean jarriko da, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, gutxienez berrogeita bost egun baliodunez, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Horrez gain, udalerrian gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da.

Informazioa emate aldera, egoitza elektronikoan eta egokitzat jotzen diren bestelako hedabideetan ere argitaratuko da (46/2020 Dekretuaren 27.1 artikulua).

5. Herritarrentzako azalpen saioa, idazketa taldearen eskutik, udal bulegoetan. Saio horretan aldaketaren irismena eta edukia azalduko dira, bai eta alegazioak nola egin ere. Jendaurrean egoteko epearen erdi aldera egingo da bilkura hori. Saiorako deialdia udalaren iragarki taula ofizialean eta web orrian egingo da.

6. Idazketa taldearen alegazioei buruzko txostena. Udalarekin batera aztertuko dira alegazioak, hark ebatz ditzan eta alegaziogileei ebazpena jakinaraz diezaien.

7. Egindako parte hartze prozesu osoa jasotzea Erriberabeitiko arau subsidiarioen egiturazko aldaketa puntualaren (I02/Pozoscuro eremua) dokumentuan, eta behin-behineko onespena jasotzeko aurkeztea.

Programa hori parte hartzeko prozesuaren arabera osatu edo egokitu ahal izango da, betiere legerian ezarritako nahitaezko ekintzak bermatuz.

Argitara ematen da, bat etorriz Lurralde antolamendurako planak eta hirigintza antolamendurako tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluarekin.

Ribabellosa, 2024ko abenduaren 2a

Alkatea
AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:13 Z